



Ormaiztegui Udala

**2019eko uztailaren 1eko
UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2019eko uztailaren 1ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, eta udal berriaren eraketa aurrera eraman asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Jon ENRIQUE GALARZA Jna.
- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- M. Lierni YURRITA ARREGI And.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.



Ormaiztegui Udala

...II...

LEHENENGO PUNTUA:

AURREKO UDALBATZARREKO AKTA ONARTZEA (2019-06-15eko UDALBATZAR BEREZIA).

Alkateak itaundu du ea inork aktaren inguruan ezer esaterik baduen.

Asier Etxarri, EH Bilduko zinegotzi jaunak, hitza hartu du eta adierazi du ez zaiola akta helarazi eta onartu ala ez erabakitzeke irakurri nahiko lukeela.

Beste udalkide guztiak ados agertu dira, inork ez baitu aktarik aurretik jaso.

Idazkariak azaldu du udalkideei emailez egiten zaizkien komunikazioak duten balioa informatiboa dela baina ez juridikoa; Udala saiatzen dela, zinegotzien lana errazte aldera, emailez dokumentazioa bidaltzen, baina ez dela beti posible izaten eta eskueran dutela batzarren aurretik eta ondoren ere bileretara eramaten diren gaien inguruko espedienteak, kontsultatzeko nahiz aztertzeke.

Ondoren akta irakurri du denentzat idazkariak eta, oharririk izan ez denez, onarpena bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez onartuta geratu da.

BIGARREN PUNTUA:

ERATU DIREN TALDE POLITIKOEN BERRI EMATEA.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituenak, bere 73.3 artikuluan Udal Taldeak osatzeari buruz xedatutakoari jarraiki, Udal Idazkari-Kontuhartzaileak eratu diren udal talde politikoen berri eman du:

- ORMAIZTEGI BATZEN udal talde politikoa:

Kideak:

Jon ENRIQUE GALARZA Jna.
Agustin GILABERT MOLIST Jna.
Dunixi MURUA ANTIA Jna.
Juan LOBATO AMADO Jna.
M. Lierni YURRITA ARREGI And.
Ione USABIAGA ARRATIBEL And

Bozeramailea: Jon Enrique Galarza Jna. / Ordezkoa: Agustin Gilabert Molins Jna.

...//...

E-19/07-02



Ormaiztegui Udala

...II...

- Euskal Herria BILDU udal talde politikoa:

Kideak:

Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Bozeramailea: Asier Etxarri Eskisabel Jna. / Ordezkoa: Garazi Hach Embarek Irizar And.

HIRUGARREN PUNTUA:
UDALBATZARREKO BILKUREN MAIZTASUNA EZARTZEA.

Idazkari-Kontuhartzaileak alkateak aurkeztutako proposamena irakurri du hitzez-hitz:

ALKATEAREN PROPOSAMENA

“2019eko maiatzaren 26ko hauteskunderen ondoriozko udal korporazio berria eraturik, Ormaiztegui Udalbatzarreko bilkuren maiztasuna ezarri behar da, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuari jarraiki.

Hori horrela, eta Errege-Dekretu bereko 38. artikulua xedatua jarraiki, honako akordio hau hartzea proposatzen zaio Ormaiztegui Udalbatzarrari.

AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENENGO: Udalbatzarrak ohiko bilkurak 2 hilabetero ospatuko ditu, hots, urtarilean, martxoan, maiatzean, uztailean, irailean, eta azaroan, hilabete bakoitzeko hirugarren astelehenean, eta arratsaldeko zazpitan.

BIGARREN: Alkatea ahalmentzea ohiko bilkuraren ospatze data aldatzeko, ohiko bilkura jaiegun edo zubian suertatuko balitz, data hau aurreratu edo atzeratzeko, bilkura horrek bere ohiko izaera mantenduko duelarik.”

Zinegotzietako inork ezer adierazi ez duenez, besterik gabe, udalkideek gaia bozkatzeari ekin diote eta zortzi udalkideen aho batezko aldeko botoarekin Udalbatzarrak



Ormaiztegui Udala

...//...

HONAKO AKORDIO HAU HARTU DU:

LEHENENGO: Udalbatzarrak ohiko bilkurak 2 hilabetero ospatuko ditu, hots, urtarrilean, martxoan, maiatzean, uztailan, irailean, eta azaroan, hilabete bakoitzeko hirugarren astelehenean, eta arratsaldeko zazpitan.

BIGARREN: Alkatea ahalmentzea ohiko bilkuraren ospatze data aldatzeko, ohiko bilkura jaiegun edo zubian suertatuko balitz, data hau aurreratu edo atzeratzeko, bilkura horrek bere ohiko izaera mantenduko duelarik.

LAUGARREN PUNTUA:

BATZORDE INFORMATZAILEEN ERAKETA, OSAKETA ETA BILEREN MAIZTASUNA EZARTZEA.

Alkateak aurretik idatziz aurkeztutako proposamen hau azaldu du:

ALKATEAREN PROPOSAMENA

Maiatzaren 26ko udal hauteskunde ondoan, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 38. artikulari jarraiki, udal korporazio berria eratu eta hurrengo 30 egunetan, artikulua horrek agindutako aspektuak erabakitzeko beharrezkoak diren ezohiko batzarrak deitu behar dira, horietan, besteak beste, udal batzorde informatzaile iraunkorren eraketa, osaketa eta bilkuren maiztasuna ezarri behar delarik.

Udal batzorde informatzaileen sorrera hautazkoa da 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, kontuen batzorde berezia salbu, azken hau beharrezko baita udalerriz guztietan.

Azken legegintzaldietan bezala, komenigarritzat ikusten da udal batzorde informatzaile iraunkorrek sortzea, udalbatzarraren eskumenekoak diren gaiak aldeztetik aztertu, kontsultatu eta informatu daitezzen, eta era berean, partaidetza politikoa hobetzen delarik.

Hori horrela, honako akordio proposamena luzatzen zaio Ormaiztegui Udalbatzarrari,

AKORDIO PROPOSAMENA

...//...

E-19/07-04



Ormaiztegi Udala

...//...

LEHENENGO: Jarraian zerrendatzen diren udal batzorde informatzaile iraunkorrak sortzea:

- OGASUNA, LANGILEAK ETA KONTUAK / HACIENDA, PERSONAL Y CUENTAS.
- HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK / URBANISMO Y SERVICIOS.
- KULTURA, EUSKARA ETA AISIALDI / CULTURA, EUSKERA Y OCIO.
- HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / EDUCACION, JUVENTUD Y DEPORTES.
- NEKAZARITZA ETA INGURUMENA / AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE.
- GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUNA / ACCIÓN SOCIAL E IGUALDAD.

BIGARREN: Udal talde politikoen osaera ikusirik, udal batzorde informatzaile bakoitza 6 kidez osatuko da, honako osaera izango duenak:

- ORMAIZTEGI BATZEN: 4 kide
- EH BILDU: 2 kide.

HIRUGARREN: Batzordeetako lehendakaria, osaketa eta maiztasuna honako hau izango da, lehendakaria kideen artean lehenik agertzen dena dela kontuan izanik:

BATZORDEAK / COMISIONES

1. OGASUNA, LANGILEAK ETA KONTUAK / HACIENDA, PERSONAL Y CUENTAS

-Kideak / Miembros: Agustin Gilabert, Jon Enrique, Dunixi Murua, Ione Usabiaga, Asier Etxarri, Garazi Hach Embarek

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:00 h. Segundo miércoles de cada mes.

2. HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK / URBANISMO Y SERVICIOS

-Kideak / Miembros: Juan Lobato, Jon Enrique, Agustín Gilabert, Lierni Yurrita, Asier Etxarri, Aitor Okariz

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:15 h. Segundo miércoles de cada mes.

3. KULTURA, EUSKARA ETA AISIALDIA / CULTURA, EUSKERA Y OCIO

- Kideak / Miembros: Ione Usabiaga, Jon Enrique, Lierni Yurrita, Juan Lobato, Asier Etxarri, Garazi Hach Embarek

- Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:30 h. Segundo miércoles de cada mes.

4. HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

- Kideak / Miembros: Dunixi Murua, Jon Enrique, Lierni Yurrita, Agustín Gilabert, Aitor Okariz, Garazi Hach Embarek

...//...

E-19/07-05



Ormaiztegui Udala

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:45 h. Segundo miércoles de cada mes.

5. NEKAZARITZA ETA INGURUMENA / AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

- Kideak / Miembros: Agustín Gilabert, Jon Enrique, Ione Usabiaga, Dunixi Murua, Asier Etxarri, Aitor Okariz

- Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 20:00 h. Segundo miércoles de cada mes.

6. GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUNA / ACCIÓN SOCIAL E IGUALDAD

-Kideak / Miembros: Lierni Yurrita, Juan Lobato, Jon Enrique, Agustín Gilabert, Aitor Okariz, Garazi Hach Embarek.

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 20:15 h. Segundo miércoles de cada mes."

Asier Etxarri zinegotzi jaunak adierazi du oso denbora gutxi eman zaiela dagokien ordezkartzaren arabera Batzorde Informatzaileetan kideak izendatzeko eta, horrez gain, ez dutela informazio nahikoa jaso. Alkateak korreoz bidali ziola ekainaren 25ean Batzorde Informatzaileen egiturari buruzko informazioa, eta bilera bat eskatu zutela ekainaren 26rako. Bilera horretara ezin izan zuela bertaratu arazo pertsonalak tarteko, eta bertaratutako zinegotziek (Aitor Okariz eta Garazi Hach Embarek) batzordeei buruzko informazioa eskatu zutela eta alkateak ekainaren 27an goizean pasa ziola korreoz Batzorde Informatzaile bakoitzean ohikoak diren gaien deskribapena.

Idazkariak erantzun du osoko bilkura egiteko deiak bi laneguneko lehentasunarekin egin behar direla gutxienez, Legeak agintzen duenez, eta epe hori bete dela. Informazioari dagokionez, udal bulegoetan bileran aztertuko diren gaien inguruko dokumentazioa eskuragarri dutela udalkide guztiek esan du.

Alkateak adierazi du Batzorde Informatzaileen eraketa alkatearen proposamenez egiten dela, eta bere taldea harrিতa zegoela Batzarraren aurretik EH Bilduko taldearen proposamenik ez jasotzeagatik, jakinda talde honek eskatutako informazioa eskura izan ondoren ostiralean egin zuela bilera gaia lantzeko. Ostiralean inongo komunikaziorik jaso ez zuenez alkateak berak igande goizean bertan Asier Etxarri Bozeraileari eskatu ziola erantzunik gabe.

Alkateak Asier Etxarri zinegotziari galdetu dio ea Batzordeetan ardurarik ez hartzeko arrazoiak denbora falta den, eta horren erantzuna baiezkoa izanik bere aldetik prest agertu da EH Bilduk egin edo aldatu nahi dituen izendapenak edozein momentutan onartzeko.

...//...



Ormaiztegi Udala

...II...

Besterik gabe, bozka egiteko aukera ireki da eta zortzi udalkideen ahobatezko aldeko botoarekin, Udalbatzarrak

HONAKO AKORDIO HAU HARTU DU:

LEHENENGO: Jarraian zerrendatzen diren udal batzorde informatzaile iraunkorrak sortzea:

- OGASUNA, LANGILEAK ETA KONTUAK / HACIENDA, PERSONAL Y CUENTAS.
- HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK / URBANISMO Y SERVICIOS.
- KULTURA, EUSKARA ETA AISIALDI / CULTURA, EUSKERA Y OCIO.
- HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / EDUCACION, JUVENTUD Y DEPORTES.
- NEKAZARITZA ETA INGURUMENA / AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE.
- GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUNA / ACCIÓN SOCIAL E IGUALDAD.

BIGARREN: Udal talde politikoaren osaera ikusirik, udal batzorde informatzaile bakoitza 6 kidez osatuko da, honako osaera izango duelarik:

- ORMAIZTEGI BATZEN: 4 kide
- EH BILDU: 2 kide.

HIRUGARREN: Batzordeetako lehendakaria, osaketa eta maiztasuna honako hau izango da, lehendakaria kideen artean lehenik agertzen dena dela kontuan izanik:

BATZORDEAK / COMISIONES

1. OGASUNA, LANGILEAK ETA KONTUAK / HACIENDA, PERSONAL Y CUENTAS

-Kideak / Miembros: Agustin Gilabert, Jon Enrique, Dunixi Murua, Ione Usabiaga, Asier Etxarri, Garazi Hach Embarek

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:00 h. Segundo miércoles de cada mes.

2. HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK / URBANISMO Y SERVICIOS

-Kideak / Miembros: Juan Lobato, Jon Enrique, Agustín Gilabert, Lierni Yurrita, Asier Etxarri, Aitor Okariz

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:15 h. Segundo miércoles de cada mes.

...II...

E-19/07-07



Ormaiztegi Udala

3. KULTURA, EUSKARA ETA AISIALDIA / CULTURA, EUSKERA Y OCIO

- Kideak / Miembros: Ione Usabiaga, Jon Enrique, Lierni Yurrita, Juan Lobato, Asier Etxarri, Garazi Hach Embarek

- Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:30 h. Segundo miércoles de cada mes.

4. HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

- Kideak / Miembros: Dunixi Murua, Jon Enrique, Lierni Yurrita, Agustín Gilabert, Aitor Okariz, Garazi Hach Embarek

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 19:45 h. Segundo miércoles de cada mes.

5. NEKAZARITZA ETA INGURUMENA / AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

- Kideak / Miembros: Agustín Gilabert, Jon Enrique, Ione Usabiaga, Dunixi Murua, Asier Etxarri, Aitor Okariz

- Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 20:00 h. Segundo miércoles de cada mes.

6. GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUNA / ACCIÓN SOCIAL E IGUALDAD

-Kideak / Miembros: Lierni Yurrita, Juan Lobato, Jon Enrique, Agustín Gilabert, Aitor Okariz, Garazi Hach Embarek.

-Maiztasuna / Periodicidad: hilabeteko bigarren asteazkena 20:15 h. Segundo miércoles de cada mes.

BOSTGARREN PUNTUA:

KIDE ANITZETAKO ORGANOETAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA:

Alkate jaunak bere proposamena aurkeztu du

1. EUDEL

TITULAR Jon Enrique

SUPLENTE Agustín Gilabert

2. GOIMEN

TITULAR Agustín Gilabert

SUPLENTE Jon Enrique

3. GOIEKI S.A

TITULAR Jon Enrique

SUPLENTE Agustín Gilabert



4. SASIETA MANKOMUNITATEA

TITULAR Jon Enrique
SUPLENTE Agustín Gilabert

5. GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA

TITULAR Jon Enrique
SUPLENTE Agustín Gilabert

6. TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNITATEA

TITULAR Agustín Gilabert
SUPLENTE Jon Enrique

7. SAN ANDRES HERRI ESKOLA PUBLIKOA

TITULAR Dunixi Murua
SUPLENTE Jon Enrique

TXINDATA MUSIKA ESKOLA

TITULAR Lierni Yurrita
SUPLENTE Jon Enrique

GOIERRIKO BEHEKO INDUSTRIALDEA

TITULAR Agustín Gilabert
SUPLENTE Jon Enrique

8. GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA

TITULAR Jon Enrique
SUPLENTE Juan Lobato

9. IKASLAN FORMAKUNTZA ZENTROA

TITULAR Dunixi Murua
SUPLENTE Jon Enrique

10. HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

TITULAR Lierni Yurrita
SUPLENTE Jon Enrique



Ormaiztegui Udala

...//...

Besterik gabe, udalkideek gaia bozkatu dute eta zortzi udalkideen aho batezko aldeko botoarekin, Udalbatzarrak, kide anitzetako organoetako udal ordezkariak izendatu ditu.

SEIGARREN PUNTUA: **ALKATEORDEEN IZENDAPENEN BERRI EMATEA.**

Udal idazkari-kontuhartzaileak alkatezatzak emaniko ebazpenaren berri eman du.
Hona ebazpenaren edukia hitzez-hitz:

“EBAZPENA R-19/245

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.a. eta 21.2 artikuluen eta 2568/1986 Errege-Dekretuaren 46.1 artikuluen arabera, arabera, alkateordeak izendatzea alkatezari dagokio.

Bestalde, korporazio eraketaren bilkuratik hurrengo 30 eguneko epean, 2568/1986 Errege-Dekretuaren 38. artikuluen arabera, izendapen hauen berri eman behar zaio Udalbatzarrari.

Hori horrela, eta indarreko araudiak ematen dizkidan eskurantzen arabera, honako hau

E B A Z T E N D U T :

LEHENENGO:

Udal honetako zinegotzi den Agustín Gilabert Molins jauna (ORMAIZTEGI BATZEN talde politikokoa) lehen alkateorde izendatzea indarreko arautegiak ematen dizkion eskurantza eta prerrogatiba guztiekin.

BIGARREN:

Udal honetako zinegotzi den Dunixi Murua Antia jauna (ORMAIZTEGI BATZEN talde politikokoa) bigarren alkateorde izendatzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskurantza eta prerrogatiba guztiekin.

HIRUGARREN:

Erabaki hau alkateorde izendatuei jakinaraztea.

LAUGARREN:

Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Ormaiztegui Udala
...H...

Ormaiztegin, 2019eko ekainaren 24ean.

Alkate-lehendakariak,

Jon ENRIQUE GALARZA

Nire aurrean,
Idazkariak

Begoña Antxustegi Bengoetxea"

ZAZPIGARREN PUNTUA:

UDALKIDEEK JASO BEHAR DITUZTEN ORDAINSARIEN EZARPENERAKO PROPOSAMENA.

Jon Enrique alkateak hitza hartu du eta adierazi du ordainsariak azken legegintzaldietan ezarritakoak direla, ez dela aldaketarik egin eta bere horretan mantentzea proposatzen dela.

ALKATEAREN PROPOSAMENA

Dedikazio partziala edo dedikazio eskusiboa ez duten udalkideentzat honako bertaratzeak onartzea proposatzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.3 artikulua araber.

Hori horrela, honako akordio proposamena luzatzen zaio Ormaiztegui Udalbatzarrari

AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENA: Jarraian aipatzen diren bertaratze eta dotazio ekonomikoak proposatzen dira:

Alkateak: 500 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.

Alkateordea: 360 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.

Udal Batzorde Informatzaileetako eta Kontratazio Mahaietako Lehendakariak:

- 140 euro Udal Batzorde Informatzaileetara eta Kontratazio Mahaietara bertaratzeagatik, hurrenez-hurren.

Zinegotziak:

- 40 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.

- 40 euro Udal Batzorde Informatzaileetara bertaratzeagatik.

- 40 euro Kontratazio Mahaietara bertaratzeagatik.



Ormaiztegui Udala

GEHIENEZKO KOPURUAK

- Alkateak, hiruhilabeteko gehienez 1.500 euro gordin.
- Alkateordeak, hiruhilabeteko gehienez 1.070 euro gordin.
- Udal Batzordeetako Lehendakariak, hiruhilabeteko gehienez 420 euro gordin.
- Zinegotziek, hiruhilabeteko gehienez 250 euro gordin.

Udal-talde politikoentzako hileko asignazio ekonomikoa:

- Udal taldeentzako dotazio ekonomikoak hileko:
 - Udal talde politiko bakoitzeko kopuru finkoa: 70 euro.
 - Zinegotzi bakoitzeko: 20 euro.

BIGARREN: Ordainketak hiruhilabetez behin egingo dira, hau da, urrian, urtarrilean, apirilean eta uztailen.

HIRUGARREN: Dagozkien ordainketak atzeraeraginarekin eta udal korporazio berria eratu zen datatik egitea."

Idazkariak gehitu du aurreko legegintzaldietan, alkate jaunari edo andreaki dedikazio partziala aitortu zaionean, udalbatzarretara joateagatik ez zaiola aparte ordaindu baina Udalbatzarrari dagokiola akordio hori hartzea, orain ez bada, alkatearen dedikazioa aztertzean.

Zinegotzi jaun-andreek ez dute itaunik edo oharrik egin eta bozkatu egin da. Ahobatez onartuta geratu da alkatearen proposamena eta, hortaz, Udalbatzarrak

HONAKO AKORDIO HAU HARTU DU :

LEHENA:

Jarraian aipatzen diren bertaratze eta dotazio ekonomikoak proposatzen dira:

* Alkateak:

- 500 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.

* Alkateordeak:

- 360 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.

* Udal Batzorde Informatzaileetako eta Kontratazio Mahaletako Lehendakariak:

- 140 euro Udal Batzorde Informatzaileetara eta Kontratazio Mahaletara bertaratzeagatik, hurrenez-hurren.

* Zinegotziak:

- 40 euro Udalbatzarretara bertaratzeagatik.
- 40 euro Udal Batzorde Informatzaileetara bertaratzeagatik.
- 40 euro Kontratazio Mahaletara bertaratzeagatik.

GEHIENEZKO KOPURUAK

- Alkateak, hiruhilabeteko gehienez 1.500 euro gordin.
- Alkateordeak, hiruhilabeteko gehienez 1.070 euro gordin.
- Udal Batzordeetako Lehendakariak, hiruhilabeteko gehienez 420 euro gordin.
- Zinegotziek, hiruhilabeteko gehienez 250 euro gordin.



Ormaiztegui Udala
2019...

- * Udal-talde politikoentzako hileko asignazio ekonomikoa:
- Udal taldeentzako dotazio ekonomikoak hileko:
 - Udal talde politiko bakoitzeko kopuru finkoa: 70 euro.
 - Zinegotzi bakoitzeko: 20 euro.

BIGARREN:

Ordainketak hiruhilabetez behin egingo dira, hau da, urrian, urtarrilean, apirilean eta uztailean.

HIRUGARREN:

Dagozkien ordainketak atzeraeraginezko eraginarekin eta udal korporazio berria eratu zen datatik egitea.”

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegi, 2019ko uztailaren 3an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin: Begoña Antxustegi Bengoetxea

